

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

2026an kirol-jarduerak egiteko dirulaguntzen deialdia onartzea

BDNS (Identif.): 907789.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/907789>).

ZINEGOTZI ORDEZKARIAREN PROPOSAMENA, ALKATE-UDALBURUAREN DEKRETU BIDEZ EBAZTEKO

Alkate-udalburuak 2023ko ekainaren 30ean emandako 1178 Dekretuaren bidez, eskuordetza eman die arloetako zinegotziei. Horiek horrela, zinegotzi ordezkariak jarraian ageri den ebazpena hartzea proposatzen dio alkate-udalburuari:

ZERBITZU UNITATEA: Kirolak.

Esp.: 2026/2348.

Gaia: 2026an kirol-jarduerak egiteko dirulaguntzen deialdia onartzea.

Laudio Udaleko Nortasun Arloaren helburuetako bat da elkarte edo erakundeei laguntzea, hain zuzen ere, kirol-jarduerak egitea helburu nagusi duten elkarte edo erakundeei, izan aisialdiko kirola, oinarriko kirola zein lehiaketazkoa.

Laguntza hauekin sustatu eta bultzatu nahi da udalerriko kirol-eragileek kirol-jarduerak gauzatu ahal izatea, haiekin lankidetzan arituz, betiere, udal-aurrekontuek dituzten kontsignazioen ondoriozko muga barruan.

Kontuan hartuta dirulaguntzen udal-ordenantza.

Kirol Zerbitzuko Unitateak kirol jardueretarako dirulaguntzak emateko 2026. urterako deialdia egin du.

Ikusirik Nortasun Arloko arduradunak 2026ko maiatzaren 12an egindako memoria-txostena.

Ikusirik 2026ko maiatzaren 20an egindako Idazkaritzaren txostena.

Ikusirik 2026ko maiatzaren 21an egindako Kontu-hartzailetzaren txostena. (RC 2026.2-2091).

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 1985/7ko Legearen 21. artikulua emandako ahalmenak erabiliz, alkate-udalburuak hau

EBATZI DU

LEHENENGOA: Alkate-udalburuaren esku uztea espediente hau ebaztea.

Erabaki honen arrazoia da deialdi honetan jasotako dirulaguntzak premiaz izapidetu eta eman behar direla.

BIGARRENA. Onartzea 2026an kirol-jarduerak egiteko dirulaguntzen deialdia. Dirulaguntzak norgehiagoka-araubidearen arabera emango dira.

HIRUGARRENA. Onartzea deialdi honetarako bideratutako 80.500,00 euroko gastua. Deialdi honen bitartez (2026. urtea) emandako dirulaguntzen kopuru osoak ezin izango du inoiz ere gainditu indarrean dagoen udal-aurrekontuan aurreikusitako 80.500,00 euroko zenbatekoa.

Zenbateko hori lote hauetan banatuko da:

1. lotea: kirola modu federatuan egiten duten kirol-elkarte eta -klubentzako dirulaguntzak; lote horretatik kanpo geratzen dira urteko dirulaguntza izenduna izapidetzen zaien klubak (56.982,50 euro).

2. lotea: ikastetxeen eskola-kirolerako dirulaguntzak (4.542,50 euro).

3. lotea: dibertsitate funtzionala dutenekin lan egiten duten kirol-elkarte eta -klubentzako dirulaguntzak (1.150,00 euro).

4. lotea: Laudion kirol-jarduera puntualak antolatzeako dirulaguntzak (4.542,50 euro).

5. lotea: igoera- edo sailkapen-faseetan edo Laudiotik kanpoko txapelketetan parte hartzen duten kirol-elkarte eta -klubentzako dirulaguntzak (Laudiotik 40 kilometro baino gehiagora); klub eta urte bakoitzeko jaso beharreko zenbatekoa ez da inoiz 5.400,00 eurotik gorakoa izango (10.263,75 euro).

6. lotea: kirolarientzako joan-etorrietarako bekak; jaso beharreko zenbatekoa ez da inoiz 1.300,00 eurotik gorakoa izango kirolari bakoitzeko, edo kopuru hori klub berean militatzen duten kirolarien kopuruaz zatituta ateratzen den zenbatekoa baino handiagoa (3.018,75 euro).

LAUGARRENA. Deialdi honen gastua 0401 3411 48100 "Subvenciones actividades Deportivas" aplikazioaren kontura egotziko da, Audio Udalak 2026rako duen aurrekontu luzatuaren barruan.

BOSGARRENA. Eskabideak hogeit egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Pertsona juridikoek egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu behar dituzte eskabideak, eskabide-orri normalizatua beteta; pertsona fisikoek, aldiz, egoitza elektronikoaren bidez edo Herriarrentzako Arreta Zerbitzuan, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean zehaztutako moduetan.

SEIGARRENA. Deialdi hau Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean (BDNS) eta ALHAOn argitaratuko da. Aurrekoaz gain, udaletxeko iragarki-taulan eta ohiko udal-komunikabideetan ere argitaratuko da.

ZAZPIGARRENA. Ebazpen honen berri ematea egingo den gobernu batzordean.

Laudio, 2026ko maiatzaren 15a

Alkate-udalburua

AINIZE GASTAKA MARTINEZ